14. Hiri-hazkunde formak II

- XIX. mendeko hiri-hazkunde formak:

    - Zabalgune burgesa edo *dezimononikoa*: Partzelazioa egiteko kalean oinarritzen den eta etxe-irla erabiltzen duen hazkunde-forma errepikagarri eta isotropoa; etxabeetan lokalak ezarri ziren, askotan etxe-irla osoa hartuta; higienea eta ganorazko zirkulazioa bilatu zen. Adibideak: Bilbo (Amado Lazaroren proiektu ez gauzatua, 1862; Atxukarro, Altzola eta Hoffmeyer, Cerdaren arrazionaltasuna eta barroko eta neoklasikoaren ardatzen nahasketa, 1876). Bartzelona (Ildefons Cerda, 1859; Madrilen inposizioa izan zen, konkurtsoa Rovira i Triasek irabazi baitzuen; Via Laietana kalearen barne-eraberritzea, XX. mendearen hasiera). Atenas (1833). Argel (1858). Bari, Trotti plana. Madril (Castro plana, 1860; Gran Vía kalearen barne-eraberritzea, 1906). Ikus http://eu.wikipedia.org/wiki/Zabalgune_(hirigintza).

    - Industriagunea: Industria iraultza eta gero, lantegiak hirietara eramaten dira. Trenarekin, ez dute lehengaien alboan egon behar jada, eta salmenta puntuen alboan ezartzen dira. Adibideak: Legazpiko Patricio Etxebarria industria. Arrasateko biztanleria 1950-70 urte bitartean bikoiztu egin zen. Abandoibarra (Euskaldunako ontziolako lehen itsasontzia 1905. urtean egiten da).

- XX. mendeko lehen erdiko hiri-hazkunde formak:

    - Langileen auzoak eta lorategi-hiriak, gaurko babes ofizialeko etxebizitzen aurrekariak (ikus http://eu.wikipedia.org/wiki/Lorategi-hiri):

        - Bilboko Udal etxebizitzak, langileentzat eginak, "*Ley de Casas Baratas*" (1911) delakoari jarraiki: Solokoetxe (170 etxebizitza 3 eraikinetan; Rikardo Bastida eta Emiliano Amann, 1918-41), Torre Urizar, Irala (264 etxebizitza orrazi formako eraikin bakarrean; R. Bastida, 1919), Torre Madariaga, Deustu (685 etxebizitza 9 bloketan; R. Bastida, E. Amann eta German Agirre, 1942-50), Pedro Astigarraga taldea, San Inazio (227 etxebizitza 3 bloketan; Rufino Basañez, 1964). Otxarkoagako herrixka zuzendua, 1960-61 (3.672 etxebizitza eraiki zituzten urte bakarrean; Julian Larrea, Esteban Argarate eta R. Basañez). Otxarkoagako auzokoen elkarteari buruzko bideoa (12:30 min).

        - Euskal Herriko lorategi-hiriak, hasiera batean langileentzako etxe merkeak zirenak. Adibideak: Ondarretako lorategi-hiria, Donostia (Luis Elizalde, 1921). Gasteizko lorategi-hiria (Jose Luis Lopez de Uralde, 1926). Matikoko lorategi-hiria, Bilbo (Pedro Ispizua, 1922). Iruñeko Argarai kolonia (Joaquin Zarranz eta Juan Madariaga, 1933).

        - *New Town* ingelesak. Sendibakarreko etxebizitzez betetako hiri osoak, London hiriko dentsitatea jeisteko asmoarekin sortuak. Madrilen ere herrixka zuzenduak eraiki ziren hiri handiaren satelite gisa. Parisen *Villes Nouvelles* direlakoak egin zituzten ere bai.

        - *Hof* (*Höfe*, pluralean: *patioak*) edo *Gemeindebau* (*Gemeindebauten*, pluralean: *Udal eraikinak*) austriarrak. 1918-34 urte bitarteko Vienako langile-auzoak, Udalak sustatutakoak sozialisten Lehen Errepublikaren garaian, dentsitate handikoak, erdigunetik urrun baina trenbidez ongi lotuak daudenak. Patio bat edo batzuen inguruan antolatu ohi ziren – hori dela eta, gotorleku izaera punttu bat zuten-, eskuarki berdeguneak eta eraikin amankomunak (haurreskolak, garbitegiak…) zituztenak, etxeetarako sarrerak patio horietatik egiten zela. Etxebizitzak txikiak dira, eta jabegoa, publikoa (alokairukoak dira). Adibidea: Karl Marx Hof (1.100m luze, 1.382 etxebizitza; Karl Ehn, 1927), Vienako *Gemeindebau*rik handiena. *Hof* itxurako adibide gertua: Secundino Zuazok 1931an proiektatutako etxebizitza-antolakuntza Madrilgo zezen plaza zaharraren orubean.

        - *Siedlung* (*siedlungen*, pluralean: *establezimendu*) moderno alemaniarrak. 1910-33 urte bitartean, eta batez ere Weimarko Errepublika garaian garatutako babes ofizialeko langile-etxebizitzak. *Hof*ekin alderatuta, *siedlung*ak dentsitate bajuagokoak dira, baita irekiagoak eta organikoagoak ere (kolonia izaera dute, ez etxe-irla handiarena). Gehienak Mugimendu Modernoaren estiloan eraiki zituzten. Eskuarki, ganorazko espazio publikoa sortzeko asmoarekin antolatu zituzten. Berlineko 6 *siedlung*ak, hirigunearekin metroaz lotuak (1902an eraikitzen hasi zirena). Adibidea: Hufeisensiedlung (*ferraren establezimendua*), Britz, Berlin, jatorrizko laku baten inguruan (600 ha, 20.000 etxebizitza; Bruno Taut eta Martin Wagner, 1925-1933). *Siedlung* itxurako adibide gertua: Abanto-Zierbenako Gallartako *El Casal* izeneko poligonoa (184 etxebizitza; E. Ginea, A. Boyra, V. Santamarina eta J. Urtxegi, 1982).

- Hazkunde-forma bakoitza hirigintzako hiru faseetan bereizten da, eta ez bakarrik kanpoko itxuran: Hiriaren eraikuntza Partzelazioa + Urbanizazioa + Eraikuntza da, eta hirurak ez dira zergatik batera edo jarraian eman behar (Manuel Solà-Moralesen arabera). Hiri zati baten hazkunde forma bat bereizteko, hiru faseon ezaugarriak ikertu behar dira ere bai.